

VITAL Memoria 2025

2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

↑

Sakatu dokumentu osoan nabigatzeko

2011n, EAEko hiru aurrezki-kutxek bat egitea eta finantza-negozioa sendotzea erabaki zuten, eta banku bakar bihurtu ziren. Horrela, 2012an, Kutxabank sortu zuten hiru eus-kal aurrezki-kutxek, eta bankuaren akziodun bihurtu ziren: kapitalaren % 57 BBK-k, % 32 Kutxak eta % 11 Vital Kutxak. Gaur egun, hiru banku-fundazioek Kutxabanken mozki-netatik lortzen dituzte funtzionamendurako sarrera gehienak.


Arabaren kasuan, Vital Banku Fundazioak dibidendua jaso eta gainerako Vital Fundazioetara bideratzen du: Vital Fundazioa, Estadio Vital Fundazioa, Idiomas Vital Fundazioa eta Sancho el Sabio Vital Fundazioa.

Vital Fundazioa da programa asistentzialak, prestakuntzakoak eta hezkuntzakoak, kulturalak eta kirolekoak, ikerketa eta berrikuntzaren aldekoak eta gure lurraldeko inguru-men- eta historia-ondarea zaintzearen aldekoak kudeatzen dituen erakundea. Horregatik, Vital Fundazioak arabar guztien ongizatearen aldeko ekintzak bideratzen ditu, hainbat printzipiotan oinarrituta, hala nola inklusioa, hurbiltasuna, proaktibitatea eta lan-kidetza.

2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Vital Fundazioa: 175 urte ekinean

Azaroan, Vital Fundazioak ekitaldi bat antolatu zuen Jardines de Uleta ho-
telean, Gasteizko Aurrezki Kutxaren sorreraren **175. urteurrena** ospatzeko
Arabako gizartearekin batera. Euskadin eta Estatuan sortu zen udal-jatorri-
ko lehenengoa izan zen. 1.000 errealeko gordailu bakarraren eskutik hasi
zen historia, eta mende bat eta hiru laurden geroago, anbizio handiko proie-
ktu bilakatu da, enpresek ere lekua baitute bertan, eta XXI. mendeko gizar-
te ekintzaren eredu berria garatzea du helburu. Ekitaldiak Arabako gizarte,
kultura, enpresa, ekonomia eta erakundeetako ordezkariak bildu zituen,
eta Fundazioak garatzen jarraitzen duen gizartearen aldeko zerbitzu lana
omendu zuten.



2025 ZENBAKITAN	●
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

2025

zenbakitan

2025 ZENBAKITAN	
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Vital Fundazioa zenbakitan


Arabarren bizi-kalitatea hobetzeko proiektuak sustatzeko kudeatu ditu bere baliabideak Vital Fundazioak.

- Gizarte-bazterketaren eta gaixotasunaren aurka borrokatzeko gizarte-programak babestea.
- ARKABIaren inaugurazioa, gune sozial eta kultural berria, topagune, truke eta sormen gune izan dadin pentsatua.
- Hezkuntza- eta ikerketa-proiektuak bultzatzea.
- Enplegurako eta laneratzeko prestakuntza sustatzea.
- Arabako Lurralde Historikoko ingurumenarekiko eta ondarearekiko konpromisoa.
- Kirola egitea sustatzen duten erakundeekin lankidetzan aritzea.

Inbertsioa guztira: 9.497.807 € (2024an baino % 15,21 gehiago)

Inbertsioa arloka:

- Kultura arloa: 3.036.864€
- Gizarte arloa: 1.686.158€
- Hezkuntza arloa: 2.237.735€
- Enplegu arloa: 702.509€
- Ingurumen arloa: 990.957€
- Kirol arloa: 843.584€




2025 ZENBAKITAN	●
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Vital Fundazioa zenbakitan

2025ean, Vital Fundazioak jarduera propioetan eta lankidetzako jardue-
retan banatu du bere gizarte ekintzaren kudeaketa. Lankidetzak lurralde-
ko elkarte edo erakundeekin egindako **ohiko hitzarmenen** bidez egin dira,
baita Arabako gizarteak eskatutako behar berriei erantzuteko erakundeak
abian jarritako **laguntza deialdi irekiaren** bidez ere.

- **Jarduera propioak 3.562.172 €**
- **Lankidetzako jarduerak 5.935.635 €**
 - Hitzarmenak elkarte eta erakundeekin 4.414.600 €
 - Laguntzen deialdia 1.430.275 €
 - Ekipamenduetarako deialdia 90.760 €



3.000

JARDUERATIK GORA

200.000

ONURADUN BAINO GEHIAGO

2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	●
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31



2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	08
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Kultura arloa (3.036.864€)

Vital Fundazioak osorik berritu du Posta kaleko 13-15eko erakusketa-lokal zaharra, eta **ARKABIA** sortu du, gure bizia, irekia eta abegitsua. ARKABIAn, kultura esperientzia kolektiboa da. Era berean, bere programa propioei eusten die eta babesa ematen die kultura jarduera ugariri. Arreta berezia eskaintzen die euskal kulturari mahiz kultura berrikuntzari.

Arkabia

Abenduaren 17an, erakundeak 2025ean hasitako proiekturik garrantzitsuena ireki zen. **ARKABIA**, erakundearen espazio sozial eta kultural berria, elkartruckerako, topaketarako eta sormenerako leku izan dadin inauguratu zen, pertsona guztiek kulturaz irisgarritasun- eta inklusio-baldintzetan gozatzeko aukera izan dezaten diseinatuta. 2.800 m² ditu, eta bertan, **erakusketa-aretoak, balio anitzeko espazio bat, hezkuntzarako eta bitartekaritzarako gela bat** eta interakzio sozialerako leku izateko pentsatutako herritarrentzako **gune ireki bat** ditu.

Bere izenak Artea, Araba eta Kabia hitzak konbinatzen ditu, ideiak eta emozioak modu partekatuan inkubatzen eta hazten diren lekua gogora ekarriz. Sarrera nagusia Gasteizko Posta kaleko 13-15ean dago. Fatxadak LED pantaila handi bat du, eta pieza artistikoetarako nahiz hiriko kultura jardueren hedapenerako euskarria da. Barrualdean, argiztapen sistema erregulagarria duen ataria dago eta lau espazio bereziak: Erakusketa gunea / ARKABIA Bizia / Tailer gela / ARKABIA Plaza / Lasaitasun gela.



2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	09
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Lehendabiziko urratsak ARKABIAN

Gunea ireki zenetik, Lurraldeko kultura-bizitzaren gune aktibo eta egituratzaile izaten hasi da, programazio zabala eta askotarikoa antolatzen baitu. **Bidegurutzea** inaugurazio-erakusketak kulturgunearen ildo artistikoa markatu du, eta Arabaren nortasuna eta historia definitzen joan diren konstanteei eta etorkizuneko begiratu die, baita bere ahotsei eta etorkizuneko erronkei ere. Jon Astorkizaren **Liminal** lanak proposamen berritzailea helarazi du eraikinaren kanpoaldera, mugimenduan dagoen eta datu demografiko errealak dituen paisaia bistaratzean oinarrituta.

Aldi baterako instalazio horiei ARKABIA Bizia erabilera anitzeko aretoaren hileko programazioa gehitu behar zaie. Bere proposamenen artean, honako hauek nabarmendu behar dira: **Bihotza** dokumentalaren emanaldia; **Araba** mugimenduan zikloa, publikoa lurraldeko ikus-entzunezko memoriara hurbiltzea ahalbidetu duena, kontakizun kolektibo eta indibidualen bidez; eta **Rita Payésen** kontzertua; hartara, eskaintza anitza eta garaikidea sendotu du lehenengo urratsetatik.



2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	●
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Kultura programa propioak

2025ean, Vital Fundazioak agenda kultural garrantzitsua izan du, batez ere erakundeak zuzenean garatua, Vital Fundazioa Kulturunea aretoan.

- **Astearte Musikalak.** Ganbera-musikaren zikloa, duela hiru hamarkada baino gehiagotik erreferentea. Hamabost kontzertu egin ziren, eta 4.372 lagun bertaratu ziren.
- **Zinemastea.** Euskal zinemaren astea, sektore zinematografikoaren babesa sustatzeko antolatua. Bederatzi film proiektatu dira eta 2.250 parte-hartzaile izan dira.
- **Euskal Dokumentalaren Astea.** XI. edizioa izan da eta zinemari eta musikari lotutako bizi istorioei eskaini zaie. Bost emanaldi egin ziren.
- **Jazz Vital.** Jazza zabaltzeko zikloaren IX. Edizioa izan da eta arreta berezia eskaini zaie Lurraldeko artistek egindako lanei. 894 lagun izan ziren lau kontzertuetan.
- **Arte Vital lehiaketa.** Arabako tokiko sorkuntza artistikoa (pintura, eskultura, argazkia eta beste teknika batzuk) babestu eta zabaltzeko helburua du lehiaketa honek. 140 lan jarri ziren ikusgai, horietatik 35 finalista aukeratu ziren eta lau sari eman ziren.
- **Vital Araban zehar.** Kultura jarduera deszentralizatzeko asmoz, programa honek programazio zabala eskaintzen die Arabako geografiako hainbat tokiri udako hilabeteetan.



2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	●
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Kultura-jarduerak babestea

Bere programa propioez gain, Fundazioak hainbat erakunderekin eta elkar-terekin lankidetzan jardun du, hainbat diziplina artistikotako kultura proiektuak garatzeko.

- **ARTEA.** Arte Erromantikoaren Arabako Elkarte, In Situ Art Festival, Murgiltzeak, Laudioko Kulturzaleak, Artium Museoa, Bizitzarako Pinturak.
- **MUSIKA.** Kontzertuan eta irekita, Aitzina Folk, Araba Ahotsetan, Gau-beako Schubertida, Aztarna Beltza, Bernaola zikloa, Jesus Guridi kontserbatorioa, Dazz Jazz, EGO eta EO, Gasteizko Jazz Jaialdia, MMF Mendialdea, Mendieta Kultura Elkarte, Midnight Boogie Weekend, Osteguna Rock Vital Fest, Gasteizko XVIII. Nazioarteko Musika Jaialdia.
- **ANTZERKIA.** Beñat Etxepare, Kulturarekin hazten, Hazi Araba, Antzerkiaren Astea, Vital Antzerkia.
- **ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK.** Afrikaldia, APIKA, Arabaclick, Gaztefilm Jaialdia, ICOFF, MendiTour, Umbra Light Festival.
- **KOMIKIAK, ILUSTRAZIOA ETA POESIA.**Crash Comics 2025, DIGA, Poetak Maiatzean Jaialdia, Irudika, Mazoka.
- **BESTE BATZUK.** Arabazan, Vitoria 2013 Historia Elkarte, Lau Dorreak Elkarte, Udalak, Kontzejuak, Kuadrillak, ALH Kofradiak eta Eskualde Zentroak, Urrezko Zeledonak, Etika Klusterra, DanzÁlava, Freak Festival, La Gente Rula, Magialdia.



2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	●
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Kultura-berrikuntza

Vital Fundazioak hainbat pentsamolde babesten ditu, eta kultura-abangoardiak sortzeko, ekoizteko, zabaltzeko, merkaturatzeko eta zaintzeko egitura berriak garatzen laguntzen du: Azala (artistentzako egonaldiak landa-eremuetan), Arrakala-Baratza (arte eszeniko garaikideen zentroa), Garaion Sorgingunea (aisialdirako gune sortzailea Ozetan) eta Landa Kedada Handia (landa-berrikuntzaren inguruko topaketa, egoitza Zuhatzu Kuartangon).

Euskal kultura eta euskara

Fundazioak indartu egin du euskararekiko konpromisoa; horretarako, hainbat erakunderekin lankidetzan aritu da, hala nola AEK, GEU Gasteiz, Aiaraldea Ekintza Faktoria, IAK (Lazarraga Kultura Elkartea), Araba Euskaraz eta Denon Eskola eta zenbait ekimen babestu ditu, esaterako Korrika, Euskaraldia eta Kantari. Era berean, euskal kultura bultzatu du hainbat talderekin elkarlanean arituz, hala nola Arabako Bertsozale Elkartea, Pilota federazioa, Mulixka Dantza Taldea, Jare Dantza Taldea, Zabaldantza eta Arabako Dantzarien Biltzarra.



2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	●
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Vital Eguna

Zazpigarren urtez, Vital Fundazioak jai- eta musika-jardunaldirik handiena egin du. Asteburu batean, Foruetan egindako kontzertuak nabarmen daitezke, Cruz Cafuné, Rico Rosa eta Safu artistenak esaterako, baita Gasteizen eta Lurraldean zehar banatutako beste emanaldi batzuk ere. +Musika proposamen berriak herriko taldeen kontzertuak eraman ditu hainbat auzotara, eta The Otis Redding Show-k soularen erregea omendu du Zabalganan, Artziniegan eta Dulantzin. Gainera, dagoeneko finkatuta dauden hitzorduak egin dira, hala nola Gaueko Martxa Solidarioa eta Vital Enpresa-Lasterketa, bietan parte-hartze handia izan da.



2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	●
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Gizartea

2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Gizarte arloa (1.686.158€)

Vital Fundazioak gizartearentzat eragin positiboa eta eraldatzailea duten programak bultzatzen ditu, bazterkeriaren eta pobreziaren aurka borrokatzeko, bizi kalitatea hobetzeko, gaixotasunari eta desgaitasunari ikusgarritasuna emateko eta bizikidetzaren eta gizarte kohesioaren alde egiteko.

Horien artean, hiru laguntza-programa propio nabarmendu behar dira: **audifonoetarako eta hortz-tratamenduetarako laguntzak**, 60 urtetik gorakoentzat, 129 eskatzaile artatzeko aukera eman dute; **komunak egokitze**ko programa, 60 urtetik gorako pertsoneri zuzenduta dago eta etxeko irisgarritasuna hobetzea sustatzen du, bainuontzien ordez dutxako platerak jarritz, hamabi esku-hartze egin dira; era berean, **Vitalquiler**-ek zailtasunak dituzten pertsoneri etxebizitza eskuratzen laguntzen die, eta 2025ean 27 familia berri artatu ditu.



2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Genero berdintasunaren zikloa

Fundazioak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin duen konpromisoaren ildotik, zikloaren hirugarren edizio honek 2.120 pertsona bildu ditu programatutako zortzi ikuskizunetan.

Aurten programatutako proposamenek hogeita hamarreko hamarkadako ezkongabetasunari, elikadura-jokabidearen nahasmenduei, identitateari, afektuei, osasun mentalari, maskulinitate positiboari eta adinkeriarri buruzko hausnarketara gonbidatu dute, hainbat formaturen bidez, hala nola bakarri-zketak, antzerkia, musika eta hitzaldiak.

Gizarte-bazterketaren aurkara

Bazterkeria-egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko ekintzak garatzen dituzten programei eta elkarteei laguntzea. Arreta berezia jartzen zaie ba-besik gabe dauden kolektiboari, hala nola haurrei, emakumeei edo etorkinei.

Elikagaien Bankua, Berakah, Borondate Ona, Caritas, Gurutze Gorria, Bitar-tean Jolasean, ADSIS Fundazioa, Corazonistas Fundazioa, Itaka-Escolapios Fundazioa, Jeiki Fundazioa, Gizabidea, Gizarterako, Goian Alde Zaharra, Hogar Alavés, Insola, Itxaropenaren Telefonoa, Zubia Gurutzatzen.



2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Desgaitasuna gainditzea

Autonomia eta mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonen arreta sustatzen duten elkarteekin lankidetzan aritzea, baita gizartea sentsibilizatzea eta pertsona horien nahiz senideen bizi-kalitatea hobetzera bideratutako aisialdiko tailer eta programei laguntzea ere.

APDEMA, Arabarnee, ASPACE, Aspasor, Autismo Araba, CaMinus, Down Araba Isabel Orbe, Eginaren Eginez, Itxaropena Fundazioa, ONCE.

Gaixotasunaren aurka

Gaixotasunak dituzten pertsonei arreta emateko eta haien bizi-kalitatea hobetzeko ekintzak garatzen dituzten programak eta elkarteak bultzatzea. Arreta berezia eskaintzen zaie minbizia, gaixotasun mentalak edo beste patologia degeneratibo edo mugatzaile batzuk dituzten kolektiboek.

- **Minbiziaren aurka.** ASAMMA, ASPANAFOA, Contra el cáncer Álava.
- **Gaixotasun mentalen aurka.** ACABE, ASAFES, ASASAM, Etxea Josu, Fundación Tutelar Beroa.CABE, ASAFES, ASASAM, Fundación Tutelar Beroa, Etxea Josu.
- **Endekapenezko gaixotasunen edo gaixotasun mugatzaileen aurka.** AAL, ACCU Álava, ADALA, ADEAR, ADELA, ADELES, ADELPRISE, AEMAR, AFARABA, ALCER, ARENE, Arnasa Álava, ASAFIMA, ASCUDEAN, ASOPARA, ATECE, EZEBA, Tel Euskadi.



2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	● 18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Hezkuntza, prestakuntza eta ikerketa

2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Hezkuntza, preskuntza eta ikerketa arloa (2.237.735€)

Ildo horretan, ikasleen garapenean funtsezkoak diren alderdiak lantzeko hezkuntza-programak sustatzen dira. Lankidetza horien bidez, hainbat arlo lantzen dira, hala nola hezkuntza emozionala, balioak, ingurune digitala, bizikidetza, ingurumena eta osasuna.

Ikastetxeei zuzendutako hezkuntza-programak

Ildo horretan, ikasleen garapenean funtsezkoak diren alderdiak lantzeko hezkuntza-programak sustatzen dira. Lankidetza horien bidez, hainbat arlo lantzen dira, hala nola hezkuntza emozionala, balioak, ingurune digitala, bizikidetza, ingurumena eta osasuna.

- **Hezkuntza emozionala eta sexuala.** Aldatzen, Betirako, Gazteen artean, Hemen nago, denbora-lapurrak, Miaketak Araba, Zer ikusi, hura egin.
- **Motibazioa eta balioen irakaskuntza.** CaMinus, HEI, Hey Txiki Vital, Begirada gurutzatuak, Aurrera begira, Zeruertz.
- **Hezkuntza digitala.** Reset eskola, Har ezazu kontrola.
- **Gatazkak konpontzen laguntzea.** Biribiltzen, Kokuk, Rompiendo la ley del silencio.
- **Ingurumen-hezkuntza.** Gela berdeak, Cosmium, Espazioa.
- **Osasuna.** Gosari osasungarriak, Osasun mentala nerabezaroan.



2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Lanbide-heziketa eta ekintzailetza babestea

Lanbide Heziketa eta ikasleen gaitasun teknikoak sustatzeko lankidetzak garatzen dira, hainbat sektoretan berrikuntza, ekintzailetza eta aukera berdintasuna sustatzeko.

Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: HETELekin lankidetzaz, Aurrera egin azoka eta Robo Competition ekimenen eskutik; EGIBIDerek, Indartuz proiektuaren eta Egibide-Vital Fundazioaren Harrera Gelaren bidez, besteak beste; BIC Arabarekin, Ikasekiten-Ikasten programaren bidez; AMPEArekin, STEAM diziplinetan genero berdintasuna sustatuz; Mendi-zabala LHIIrekin, praktiketan dauden ikasleek ikus-entzunezko proiektuak egin ditzaten; Gasteizko Ingeniaritza Eskolarekin (EHU), Formula Student edo Moto Student programen bidez; eta Tecnoclub Elburgo Elkartearekin, Sumobot Elburgo 2025 robot-lehiaketaren bidez.

Programa propioak

Fundazioak programa propioak ere gauzatzen ditu, hala nola **IkasVital** ikastaroak, adin guztietara bideratutako kalitatezko irakaskuntzak, irakasle espezializatuek emanak eta ezagutza berriak lortzera eta gaitasunak indartzera bideratuta daudenak. Ikastaro horietan hamasei prestakuntza- eta jolas-jarduera egin dira, besteak beste, teknologia berriak, aire zabaleko jarduerak, artea, historia, ekonomia, legeria, ongizatea eta gaurkotasuna lantzen dituztenak, eta milaka parte-hartzaile lortu dira aurrez aurreko eta online dozenaka ikastarotan.

Gainera, **Vital Fundazioaren** beken programak Arabako ikasleen prestakuntza babesten du, haien ikasketen karga ekonomikoa arintzen laguntzeko hainbat arlotan, hala nola hizkuntzetan eta gaitasun pertsonaletan. Hainbat ekimen eta zentro hartzen ditu barne, esaterako Ika Gasteiz, Egibide, unibertsitateko Erasmus eta Lanbide Heziketakoak.



2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Ikerketa eta berrikuntza

Ikerketa eta berrikuntza bultzatzea helburu, Fundazioa EHUrekin lankidetzan aritzen da Inizia Arabacampus edo Zientzia Astea programetan, besteak beste, eta berrikuntza ekimenetan zein ikerketa proiektuetan hartzen du parte eta ekipamenduaz hornitzen ditu ikerketa taldeak. Era berean, KONEXIO-ONA erakundearekin, Gasteizko Udalarekin eta EHUko PSIDES-Psikologia sailarekin batera, nerabeen pornografia-kontsumoari buruzko bi urteko programa bat garatzen da.

Halaber, aktiboki hartzen du parte CIATCAN, hibridazioaren bidez berrikuntza irekiko prozesuetan aitzindaria den Hibridalab zentroaren sorrera bultzatzen baitu. Ildo horretan, Galdera Ekinn programa garatzen da, Arabako elkarteak Enpresa Berritzaileen Klubean sar daitezela errazten duen programa, hain zuzen ere.

Beste irakaskuntza batzuk

Bestalde, irakaskuntza ez oso konbentzionalak landu nahi dira, hainbat kolaborazioren bidez. Fundazioak honako hauekin aritzen da elkarlanean: Awake (gazteentzako hezkuntza emozionala), Boluntariotza Hedatuz 25 (aisialdiko espazioetan drogen kontsumoari lotutako arriskuak murrizteko gazteen boluntariotza indartzeko), Matrioshka (errusiar kulturaren hainbat alderdiri buruzko klaseak), Arrakala digitala (adinekoen arrakala digitala hobetzeko) eta Esperientzia Gelak.

2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	●
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Enplegua eta laneratzea

2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	●
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Enplegua eta laneratze arloa (702.509€)

Vital Fundazioak gazteei edo egoera bereziki ahulean dauden pertsoneri lan-aukera berriak ematen dizkieten ekimenak bultzatzen ditu, ekintzaileak babesten ditu eta aholkuak ematen dizkie beren enpresa sortzeko prozesuan, eta lan-profil lehiakorragoak lortzen laguntzen du, lan-eredu berrien arabera.

Fundazioak laneratzea sustatzeko ekimenak eta lankidetzak bultzatu nahi ditu, bereziki kalteberatasun-egoeran dauden pertsoneri zuzendutakoak. Arlo horretan, hainbat proiektuekin lan egiten da, hala nola Micaela Porti-lla Eskola Tailerra, Gureak Araba, Hazia 23 programa, Secretariado Gitano Fundazioa (Calí programa), Sartu Araba, FOARSE eta RAEP Enplegu Zen-tro Berezia, enplegarritasuna hobetzen, aukera berdintasuna sustatzen eta lan merkaturako sarbidea errazten laguntzen dutenak.

2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Ekintzailtza

Aldi berean, lanerako joera berrietara, ekintzailtзара eta Lurraldean ne-
gozioak sortzera bideratutako proposamenak ere babesten dira. Eremu
horretan, lankidetzan aritzen da AJEBASKekin, Merkataritza Ganberarekin,
Araba Ekinean-ekin, ASLEekin, Aiarako Kuadrillako lanbide-trebakuntzako
eta ekintzailtzakoko programekin eta El Correorekin, Araba Venture progra-
ma sortzeko. Ekintzaileen prestakuntza, haien arteko laguntza eta lotura
sustatzen dute, enpresa-proiektuak sortzen eta finkatzen laguntzeko, baita
Arabako garapen ekonomikoan laguntzeko ere.

Era berean, **Vital Bootcamps** enplegu-programak, Lanbiderekin eta The
Bridgerekin lankidetzan, intentsitate handiko programa laburrak eskaintzen
ditu Data Science eta Web Full Stack Garapenaren esparruetan. Programa
horietan, ikasleek trebetasun teknikoak eskuratzen dituzten, praktika in-
tentsiboaren bidez. SEA Arabako Enpresak Elkartearekin batera, Empleo
Araba programa jarri da abian, enplegu-eskaintza eta -eskaria bateratzeko,
enpresa-bitartekaritzen bidez eta hainbat ekintza gauzatuz (bekak, ikaste-
txeetara hurbiltzea eta coaching-programak).



2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	●
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Ingurumena eta lurraldearen sustapena

2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Ingurumen eta lurraldearen sustapen arloa (990.957€)

Vital Fundazioak Arabarekin duen konpromisoari eusten dio, eta ingurumen aberastasuna babestera, energia baliabideen kudeaketan eta aurrezpenean heztera, kontsumo arduratsua sustatzera, Arabako kultura ondarea kontserbatzera eta tokiko azokak eta merkatuak egiteko aukera ematera bideratutako programak babesten ditu.

Horretarako, hainbat ingurumen programa propio garatzen ditu, hala nola **Etxe Berdeak**, familiei zuzendua, kontsumo jasangarriko ohiturak sustatzea helburu; **Plastikorik ez**, hondakinak murrizteko ekintzak bultzatzeko; eta **Ibilbital**, naturarekin kontaktua sustatzeko mendi irteera irisgarriak antolatzeke. Gainera, **Jaibus Vital** ekimenaren bidez, gazteen artean mugikortasun seguruagoa eta arduratsuagoa lortzen laguntzen da, batez ere udan ospatzen diren jai patronaletan. 55 ibilbide eskaintzen dira, 29 helmugatan, eta 3.000 erabiltzaile baino gehiago ditu zerbitzu horrek. Ildo horretan, **gabonetako azoka** bat antolatzen du Gabon aurreko ostegunean, eta udalekin nahiz kuadrillekin lankidetzan aritzen da lurraldeko 46 azokatan.



2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Bihotza

Vital Fundazioak eta Kutxabankek elkarrekin ekoitzitako film dokumentala, abenduaren 22an ARKABIAn estreinatua. 2026an, lurraldeko hainbat gunetan zehar bere ibilbidea jarrai dezala aurreikusi da.

Lana Araban filmatu zen oso-osorik, hiru urtez. Profesional talde handi baten lanaren emaitza da dokumental hori, eta Lurraldearen ingurumen-abe-rastasun apartaren garrantzia nabarmendu du. 15 pieza laburren bidez, iberiar penintsulako biodibertsitate indize handiena eta Europako garrant-zitsuenetakoa duen gunetako baten ikuspegi hurbila eta askotarikoa es-kaintzen du dokumentalak.

45 minutuko iraupena du eta Arabako bizimoduen aniztasuna erakusten da, fauna nahiz flora nabarmenduz. Irudien kalitate bisualak aukera ematen dio ikusleari edertasun handiko agertoki naturaletan sartzeko: basoak, ekosis-tema urtarrak, marrualdia, urtaroen igarobidea eta espezie enblematikoen presentzia, arrano beltzarena, besteak beste.



2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Beste programa batzuk eta Lurraldearen sustapena

Programa propioez gain, Arabako aberastasun naturala kontserbatzen eta zabaltzen laguntzen duten hainbat ingurumen-ekimeni laguntzen die Fundazioak. Horien artean daude Xabier de Arizaga Herbario Digitala, Arabako Naturaren Institutuak bultzatua, Lurraldeko floraren aniztasuna jasotzeko. Tantai 2025 eta Mineral, Harribitxi eta Fosilen Erakusketa-Poltsa ere, ingurumen sentsibilizazioa sustatzen dutenak, eta beste zenbait ekintza APASOSekiko lankidetza esaterako, animalien babesera eta ongizatera bideratuta.

Aldi berean, Fundazioak Lurraldea sustatzen eta dinamizatzen duten proiektuak bultzatzen ditu, ondarearen kontserbazioa kultura- eta turismo-jarduerarekin lotzeko. Horien artean, nabarmentzekoak dira Añanako Gatz Harana berreskuratzea, Salcedoko Lagunak Elkartearen eskutik landa eremuko inauteriak berreskuratzea eta Arabako Errioxako mahastizaintza eta ardogintzaren kultura zabaltzea, Enoturismo Foroaren, Ardoarabaren eta Mahats-bilketaren Jaiaren bidez.



2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31



2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	31
LAGUNTZA-DEIALDIAK	31

Kirol arloa (843.584€)

Vital Fundazioak herritarren esparru eta estamentu guztietan kirola egitea sustatzen duten klubekin, elkarteekin eta erakundeekin egiten du lan; arreta berezia eskaintzen die eskola-umeei eta kirol inklusiboari, proba herrikoiak ahaztu gabe.

Vital Fundazioak gertutik egiten du lan hainbat klub, federazio eta gaine-rako elkarterekin oinarrizko kirola bultzatzeko, saskibaloia, futbola, gimna-sia, euskal pilota, atletismoa, txirrindularitza eta herri kirolak diziplinetan. Kirol Masterklaseak bere programa propioaren bidez, Araban gutxi irakas-ten diren zortzi diziplinen praktika bultzatu nahi da: errugbia, karatea, bo-leibola, atletismoa, triatloia, eskrima eta eskubaloia. 2025ean 102 master-klase egin ziren, 22 ikastetxetan. Bestalde, Gesto Deportivo Elkartearekin lankidetzan aritzen da Arabako kirol futboleko kiroltasuna sustatzeko hel-burua duen Deportivity programa garatzeko.

Kirol inklusiboa

Kirolaren arloan ere, pertsona bakoitzaren gaitasunak edozein direla ere, inklusioa sustatzera eta kirolerako sarbidea bermatzera bideratutako hain-bat ekimen garatzen dira.

Lankidetzan horien bidez, kirola funtsezko tresna bihurtzen da gizarteratze-ko, ongizaterako eta aukera berdintasunerako. Testuinguru horretan, hain-bat programarekin lankidetzan aritzen da Fundazioa, hala nola Arabako As-space Kirol Kluba, Arabako Boxeo Federazioa, Arabako Futbol Federazioa, Zuzenak Fundazioa, Gaztedi Errugbi Taldea, Mendi Solidarioak eta Gurekin Bat programa, Arabako Aldundiarekin eta Kirolaren Euskal Eskolarekin lan-kidetzan. Horiek guztiek dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat eta beste kolektibo batzuentzat kirol praktika egokitua eta irisgarria sustatzen dute.



2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	

Laguntza-deialdiak

2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	

2025eko laguntza deialdi irekia (1.430.275€)

Vital Fundazioak laguntza deialdi bat plazaratu du 2025ean, urte osoan irekia, Arabako gizarteak dituen erronka eta eskaera berriei erantzuteko. Erakundeak ia % 60 handitu du deialdi honetara bideratutako inbertsioa, **aurreko urtearekin alderatuta**. 1.430.275 € bideratu dira aurkeztutako 165etik 107 proiektu garatzera. Ahalik eta sektore gehienetara iristea da helburua, baita Arabako gizarte sareko erakunde guztien parte hartze askea eta baldintza berdinetan izan dadila sustatzea ere.

- Kultura arloa: 266.938 €, 44 proiektutarako
- Gizarte arloa: 515.537 €, 30 proiektutarako
- Kirol arloa: 57.800 €, 18 proiektutarako
- Hezkuntza arloa: 102.300 €, 8 proiektutarako
 - “Bideak ehuntzen, eskola-jazarpenaren aurkako proiektua” ekimena-gatik lehenengo saria CECAk eman zuen **Gizarte Ekintzako Hezkuntzaren kategorian, Ehunbide Fundazioarekin lankidetzan**.
- Enplegu arloa: 96.200 €, 6 proiektutarako
- Ikerketa arloa: 391.500 €, proiektu bakarrerako

2025 ZENBAKITAN	04
KULTURA	07
GIZARTEA	14
HEZKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA	18
ENPLEGUA ETA LANERATZEA	22
INGURUMENA ETA LURRALDEAREN SUSTAPENA	25
KIROLA	29
LAGUNTZA-DEIALDIAK	

Kirol ekipamenduen 2025eko deialdia (90.760€)

Bigarren urtez jarraian, Arabako klubei, federazioei eta beste kirol erakunde batzuei ekipamenduen erosketan laguntzeko deialdi bat egin du Vital Fundazioak. Edizio honetan, **90.760 €** bideratu dira **45 kirol erakunderen** eskaerei erantzuteko; **2024an baino % 54 gehiago**, 2024an 29 laguntza eman baitziren, eta 58.892 €-ko zenbatekoa bideratu zen deialdi hartan.

Laguntza horiek jokorako kamisetak eta galtzak, entrenamendurako arropa, igerilekuko txanoak, anorakak, txirrindularitzako arropa teknikoa eta kaskoak erosteko erabili dira.



Vital FUNDAZIOA